

MERKATUAREN SEGMENTAZIOA

– BEZEROAK ETA HAIEN EZAUGARRIAK

Gure proiektuaren bezeroak gabonak ospatu ezin dutenak dira. Hau da, arrazoi ezberdinen ondorioz, gabonetaz gozatzeko ahalmena ez duten pertsonak. Arrazoi hauek denetarikoak izan daitezke, hala nola: arazo ekonomikoak, familia, bakardadea eta abar.

Arazo ekonomikoei dagokionez, zera esan dezakegu: gaur egun, geroz eta jende gehiago bizi da egoera finantziero kaskarretan. Honen arrazoi nagusiak Covid-19aren pandemia, eta Errusia eta Ukrainiaren gatazka militarrek dira. Hori dela eta, ekitaldi hau ospatu nahi badute ere, ez dituzte baliabide nahikoak beste lehentasun batzuk baitituztelako.

Horrez gain, familiak eragin nabarmena du. Honen barruan egoera ugari nagusitzen dira: umezurtzak direnak, familia ez duten adineko pertsonak eta familia izan arren, harreman desegokiak dituztenak. Alde batetik, umezurtzek gurasorik ez dutenez, ezin dira familiarekin elkartu egun berezi hauek gertuenekin ospatzeko. Era berean, familia gabeko adinekoak situazio antzekoa bizi dute.

Beste aldetik, bakardadeak presentzia handia du arazo sozial honetan. Nahiz eta familia eduki, askok ez dira ondo moldatzen gainerako kideekin. Beraz, bakardade sentimendua pizten da.

Halaber, lagunak ez dutenek oztopoak izan ohi dituzte gabon zorientsuak bizitzeko garaian.

Laburbilduz, arestian aipaturiko guztiak gure bezero potentzialak izan daitezke.